

Matia Fundazioak Mendekotasunaren Arretaren “Nafarroa” Nazioarteko Saria irabazi du

- **Foru Gobernuak eta Caja Navarrak emandako sariak Matia Fundazioaren Ortogeriatría Unitatearen lana aitortzen du.**
- **Matia Fundazioak eta Madrilgo Paraplejikoen Elkarteak (ASPAUM) ex aequo jaso dute saria.**

(Donostia, 2013ko otsailaren 12a). Matia Fundazioak mendeko pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko egindako ekarpena hartu dute aintzat Nafarroako Gobernuak eta Caja Navarra Fundazioak, Mendekotasunaren Arretaren “Nafarroa” Nazioarteko Saria emateko. Zehazki, Ortogeriatría Unitatearen lanagatik saritu dute Matia Fundazioa. Unitatea 2010ean jarri zen abian, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, mendekotasunik gehien sorrarazten duten sindrome geriatrikoetako bat hobetzeko: erorketak eta aldaka-hausturak. Unitateak eragindako pertsonen hobekuntza funtzionala eta berregokitzea lortu nahi du, errehabilitazioa, erorketa gehiagoren prebentzioa eta zahartzaroko berrikuntza-sistemak erabiliz.

Matia Fundazioko kudeatzaile asistentzialak, Ana Orbegozok, eskuratu du saria. Haren hitzaldian azpimarratu du zein garrantzitsua den Matia Fundazioa tokiko mugak gainditu eta bere proiektua ezagutarazteko gai izatea.

Mendekotasunaren Arretaren “Nafarroa” Nazioarteko Saria 2010ean ezarri zuten, mendeko pertsonen –adinduen zein nolabaiteko desgaitasuna dutenen– bizi-kalitatea hobetzeko jardunbide berritzaileak, ikerlan nabarmenak eta bestelako ekimenak bultzatzen dituzten pertsonak eta erakundeak saritzeko. Aurreko edizioetan honako hauek izan ziren saridunak: Adindu Elkartearen Espainiako Konfederazioa (CEOMA), “Adindua eta Alzheimerrak eragindako gaixoa askatu” programagatik (2010), eta Iriscom enpresa, “Bitzira irisaren bidez” proiektuagatik (2011).



Ortogeriatria Unitatea

Matia Fundazioaren Ortogeriatria Unitateak 2010. urtean ekin zion lanari, Donostiako Bermingham ospitalean, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta Osakidetzarekin elkarlanean. Proiektuaren helburua eragindakoek mugikortasuna berreskuratu eta aldaka-hausturari lotutako autonomia-galera saihestea zen.

Urte hauetan, Unitateak 700 laguni baino gehiagori eman die arreta. Haien batez besteko adina 80 urtetik gorakoa zen. Horiei guztiei eskainitako laguntza-ereduak osotasuna eta diziplinartekotasuna ditu oinarri, Matia Fundazioaren gainerako esku-hartzeek bezala. Programak hainbat jarduketa hartzen ditu barne:

- Balorazio geriatrikoa eta banakako arreta-plana egitea.
- Diziplinarteko talde batek (mediku geriatraz, erizainaz, laguntzaileaz, fisioterapeutaz, terapeuta okupazionalaz eta gizarte-langileaz osatuak) planteatu eta gauzatutako arreta emateko eta esku hartzeko ereduak.
- Suspertze funtzionaleko tratamendu bat, honako bi osagai hauek dituen: ibileraren autonomia berreskuratzeko esku-hartze fisioterapeutikoa eta eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak (garbitzea, janzte...) betetzeko autonomia berreskuratzea xede duen terapia okupazionala.
- Etxebizitzan aldaketak egiteko eta gaixoaren autonomia eta segurtasuna areagotu ahal duten laguntza teknikoak erabiltzeko orientazioa, baita alta eman osteko jarraipena ere, 6 hilabetez.

Unitatea abian jartzea lagungarri izan da artatutako pertsonen hobekuntza funtzionala eta egokitzapena handitzeko. Gainera, mendekotasuna txikitzen eta ospitalean gaixoen egonaldia laburtzen lagundu du. Ondorioz, gaixoentzako onura eta kostu soziosanitarioaren eraginkortasuna eragin ditu.

Hemendik aurrera, Ortogeriatria Unitateak beste fase bati ekingo dio, bigarren aldaka-hausturak dituzten gaixoen kopurua txikitzeko helburuz. Horretarako, erorketak eragiten dituzten faktoreetan jarriko du arreta.

Matia Fundazioa galardonada con el Premio Internacional “Navarra” de atención a la Dependencia

- **Este premio, otorgado por el Gobierno foral y la Fundación Caja Navarra, reconoce la labor de la Unidad de Orto geriatria de Matia Fundazioa**
- **Matia Fundazioa ha recibido este premio ex aequo junto con la Asociación de Paraplégicos de Madrid (ASPAYM)**

(Donostia-San Sebastián, 12 de febrero de 2013). La contribución a la mejora de la calidad de vida de las personas dependientes ha sido el motivo que ha llevado al Gobierno de Navarra y la Fundación Caja Navarra a otorgar el Premio Internacional Navarra de Atención a la Dependencia a Matia Fundazioa. En concreto, Matia Fundazioa ha sido distinguida por la labor de su Unidad de Orto geriatria, puesta en marcha en el año 2010 en colaboración con el Gobierno Vasco con el fin de mejorar uno de los síndromes geriátricos que mayor dependencia generan: las caídas y fracturas de cadera. La unidad pretende alcanzar una mejoría funcional y la readaptación de las personas mediante la rehabilitación, la prevención de nuevas caídas y sistemas de innovación en el envejecimiento.

Ana Orbegozo, gerente Asistencial de Matia Fundazioa, ha sido la encargada de recoger este premio, y ha resaltado en su intervención la importancia de que Matia Fundazioa sea capaz de traspasar las fronteras locales para dar a conocer su proyecto.

El Premio Internacional "Navarra" de Atención a la Dependencia fue instituido en 2010 como un reconocimiento a las personas o entidades que impulsan prácticas innovadoras, investigaciones relevantes y otras iniciativas para la mejora de la calidad de vida de las personas dependientes, bien sean personas mayores o con algún tipo de discapacidad. En las ediciones anteriores fueron distinguidas con este galardón la Confederación Española de Organización de Mayores (CEOMA), por su programa "Desatar al anciano y al enfermo de

Alzheimer" (2010), y la empresa Iriscom por su proyecto "Vida a través del iris" (2011).

La Unidad de Ortogeriatría

La Unidad de Ortogeriatría de Matia Fundazioa inició su andadura el año 2010, en el Hospital Bermingham de San Sebastián, en colaboración con el departamento de Salud del Gobierno Vasco y Osakidetza. Y lo hizo con el objetivo de recuperar la movilidad en un menor tiempo y evitar la pérdida de autonomía relacionada con la fractura de cadera.

En estos años la Unidad ha atendido a más de 700 personas, con una edad media superior a los 80 años. A todos ellos se les aplica un modelo asistencial basado, como el resto de las intervenciones que se realizan en Matia Fundazioa, en la integralidad y la interdisciplinariedad. Este programa incluye diferentes actuaciones:

- Una valoración geriátrica y el desarrollo de un plan de atención individualizado.
- Un modelo de atención e intervención planteado y ejecutado por un equipo interdisciplinar (médico geriatra, enfermera, auxiliar, fisioterapeuta, terapeuta ocupacional y trabajadora social)
- Un tratamiento de recuperación funcional basado en intervención fisioterapéutica para recuperar autonomía de la marcha y terapia ocupacional orientada a la recuperación de autonomía en otras actividades básicas de vida diaria como el aseo o el vestido.
- Una orientación sobre modificaciones en el domicilio o utilización de ayudas técnicas que puedan aumentar la autonomía y seguridad del paciente, contemplando además la continuidad al alta y seguimiento a los 6 meses

La puesta en marcha de la Unidad ha contribuido a incrementar significativamente la mejora funcional y la adaptación de las personas atendidas, además de disminuir la dependencia, lo que ha hecho descender el tiempo de estancia en hospitales con el consiguiente beneficio personal y eficiencia en el coste sociosanitario.

A partir de ahora la Unidad de Ortogeriatría inicia una nueva fase con el objetivo de hacer descender el número de pacientes que presentan segundas fracturas de cadera influyendo en la modificación de los factores que favorecen la caída.

